



Europako Gutun Sozial berraztertua: Oinarrizko informazioa herritarrentzat eta gizarte zibilarrentzat

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

**www.ararteko.eus
international@ararteko.eus**

EUROPAKO GUTUN SOZIAL BERRAZTERTUA: OINARRIZKO INFORMAZIOA HERRITARRENTZAT ETA GIZARTE ZIBILAREN TZAT

Uztailaren 1ean Espainiarako indarrean jarriko da Europako Gutun Sozial Berraztertua, eta hori gertaera gogoangarria da eskubide sozialak babesteko. Europako Gutun Sozial Berraztertua lan eta gizarte arloetako giza eskubideen nazioarteko itunik osoena da, eta hori indarrean jartzeak gabezia handi bat konponduko du Estatuko giza eskubideak babesteko sistemari.

Gertakari garrantzitsu hori dela medio, Arartekoak herritarrei eta gizarte zibilari lagundu nahi die Europako Gutun Soziala eta hori berresteko ekarriko dituen berrikuntzak ezagutzen, eta euskal agintari publikoei gogorarazi nahi dizkie giza eskubideen itun horrek beraiei ekarriko dizkien betebeharrak.

Zer da?

Europako Gutun Soziala Europako Kontseiluan egindako nazioarteko itun bat da. Lehen bertsioa 1961ekoa da. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean bildutako eskubide sozialak Europan betearazteko eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmena osatzeko sortu zen; azken hori 1950ean eratu zen, baina ez zituen jaso eskubide sozialak.

1961eko Europako Gutun Sozialak 19 lan-eskubide eta eskubide sozial jaso zituen, hala nola lanerako eskubidea, lan-baldintza bidezkoak eta seguruak izatekoa, ordainsari nahikoa jasotzeko eskubidea, negoziazio kolektiborako, lanbide-prestakuntzarako, segurtasun eta laguntza sozialerako edo osasunerako eskubideak. Era berean, 1961eko Gutunak berriazko zenbait artikulua bildu zituen amak, haurrak eta desgaituak babesteko. Eskubide horiek ez zituen aipatu bakarrik egin, baizik eta, eskubide horietako bakoitzeko, betebeharrak zehatzago batzuk ezarri zituen, eta estatuek haiek betetzeko konpromisoa hartu zuten.

90eko hamarkadan, berraztertu egin zen 1961eko bertsioa, bere bermeak zabaltzeko. Horrela, 1996an, 1961eko Europako Gutun Sozial Berraztertua onartu zen, zeinak hamabi lan-eskubide eta eskubide sozial erantsi zizkien 1961ean aitortutako 19 eskubideei. Bere baitan hartu zituen, adibidez, etxebizitzarako eskubidea, pobrezia eta gizarte-bazterketaren kontra babestua izateko eskubidea, langileei kontsultatzeko eskubidea, eta haiek babesteko eskubidea, baldin eta kaleratzea edo enplegu-emailearen kaudimenik eza gertatzen baziren. 1961eko eskubideak bezalaxe, eskubide berriek betebeharrak zehatzak dakartzate berekin, eta estatuek horiek betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Ez zen nahitaezkoa izan Gutun Berraztertua berronestea. Estatu batzuek berronetsi egin zuten, beste batzuek, aldiz, hasierako bertsioan geratu ziren. Halaxe gertatu zen Espainiarekin: 1980an berretsi zuen Gutuna, baina orain arte ez zuen berretsi Gutun Berraztertua.

Zer tresna daude Europako Gutun Soziala betearazteko?

Europako Gutun Sozialaren betearazpena bi modutan ikuskatzen da nazioartean:

Lehenik, urtero, estatuek txosten bat aurkeztu behar dute hori betearazteari buruz. Txosten horiek aztertzeko organoa Eskubide Sozialen Europako Batzordea da, Europako adituen batzordea. Batzorde horrek estatuaren txostena aztertzen du, sindikatu, enplegatzaile eta GKEetatik datorren informazioarekin kontrastatzen du, eta estatu horrek Europako Gutun Sozialean ezarritako betebeharrak guztiak bete dituen ala ez erabakitzen du. Hurrengo txostenean, batzorde horrek aztertzen du ea konpondu diren aurreko txosteneko ez-betetzeak. Gainera, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak –erakundearen organo politiko gorena baita- Eskubide Sozialen Batzordeak ateratako ondorioak aztertzen ditu eta estatuei gomendioak egiten dizkie.

Bigarrenik, Eskubide Sozialen Europako Batzordeak estatuen kontrako erreklamazioak jaso ditzake, Gutuneko edozein eskubide ez betetzeagatik, baina eskumen hori aukerakoa da: bakar-bakarrik ezartzen da estatuak onartzen badu bere kontra egindako erreklamazioak Batzordeak izapidetu ditzan. Espainiak, orain arte, ez zuen onartu aukera hori; alabaina, Gutun Berraztertua berretsi ostean, onartu egin du eta, hemendik aurrera, erreklamazioak jaso ahal izango ditu.

Erreklamazioak honako hauek soilik egin ditzakete: herrialde bakoitzeko enplegatzaileen erakundeek edo sindikatuek, nazioarteko enplegatzaileen erakundeek edo sindikatuek, edo aholku-emaile maila duten eta Europako Kontseiluan erregistratuta dauden GKEek. Batzordeak erreklamazioaren eta estatuaren argudioak aztertuko ditu eta txosten bat prestatuko du.; bertan erabakiko du ea estatu horrek bete dituen ala ez alegatu diren Gutuneko artikulua. Batzordeak erabakitzen badu ez direla bete, txostena Ministroen Batzordeari helarazten zaio eta hark gomendioak egingo dizkio artikulua bete ez dituen estatuari.

Bi prozedurak lotuta daude, izan ere, estatuek aldizkako txostenetan adierazi behar dute zer egin duten erreklamazio kolektiboen prozeduran adierazi diren ez-betetzeak zuzentzeko.

Zer esan nahi du Europako Gutun Sozialak herritarrentzat?

Europako Gutun Sozial Berraztertua, Eskubide Sozialen Batzordearen eta Ministroen Batzordearen txosten, ondorio eta gomendioekin batera, tresna ahalsua da eskubide sozialak eta lan-eskubideak bete daitezen eskatzeko. Horri esker, herritarrek, sindikatuek, enplegatzaileen erakundeek eta erakunde sozialek aukera izango dute Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeria eta lan- eta gizarte-politikak Europako estandar adostu eta ondo finkatutako batekin (zorrotzena, mundu mailan) konparatzeko. Hala, arlo horietan, erantzukizuna eta kontuak emateko eskatu ahal izango diete agintari publikoei, eta, areago, eskubide horiek bete daitezen eskatu ahal izango dute auzitegietan.

Gizarte zibilak nola har dezake parte Gutunaren betearazpena ikuskatzen?

Eskubide Sozialen Batzordeak betearazpena ikuskatzeko azaldu diren prozeduretan parte hartzeko aukera ematen die gizarte zibileko erakunde batzuei:

- Erreklamazio kolektiboak jarriz, horretarako gaituta baldin badaude. Horretarako gaituta daude sindikatuak eta enplegatzaileen erakundeak, eta Europako Kontseiluaren [zerrendan](#) sartutako GKEak. Zerrenda horretan sartu ahal izateko bete behar diren baldintzak [hemen](#) ikus daitezke.
- Oharrak eginez, inplikaturik ez dauden alderdi gisa, beste erakunde batzuek hasitako erreklamazio kolektiboko prozesuetan. Horretarako, baimena eskatu behar zaio Eskubide Sozialen Europako Batzordeari.
- Estatuak aurkezten dituzten aldizkako txostenei oharrak eginez, Eskubide Sozialen Batzordeak baloratuko duen informazioa osatzeko. Hori nola egin eta zer epetan jakiteko, argibideak eskuragarri daude [Europako Gutun Sozialaren web orrian](#). Espainiak aurkeztutako txostenak [hemen](#) kontsulta daitezke.
- Eskubide Sozialen Batzordearen eta Ministroen Batzordearen txostenak, ondorioak eta gomendioak erabiliz beraien lanean (eragin politikoa, *lobby*-a, komunikazioa, ikerketa eta epaitegien aurreko auzi-lana).

Nola jakin dezaket gehiago Europako Gutun Sozial Berraztertuz?

Legezko testuak

- Europako Gutun Sozial Berraztertuen testua, [Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua](#)
- 1961eko Europako Gutun Sozialaren testua, [Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua](#)
- Europako Gutun Sozial Berraztertuen testua, Erreklamazio kolektiboen protokoloa bere baitan hartuta (ikusitako IV. zatia, D artikulua), [Europako Kontseiluak argitaratua](#) (gaztelaniaz)

Kontrol sistema

- Eskubide Sozialen Europako Batzordearen [informazioa eta harremanetarako datuak](#) (ingelesez/frantsesez)
- [Informazioa](#) aldizkako txostenak ebaluatzeko prozesuari buruz. Bertan sartuta daude Eskubide Sozialen Batzordearen ondorioak eta Ministroen Batzordearen gomendioak, Espainiak eta beste herrialde batzuek 2020ra arte aurkeztutako txostenen gainean (ingelesez/frantsesez)
- [Informazioa](#) erreklamazio kolektiboen prozesuari buruz. Bere baitan hartzen ditu erreklamazio-prozesuetan hartu diren Eskubide Sozialen Batzordearen erabakiak eta Ministroen Batzordearen gomendioak (ingelesez/frantsesez)
- [GKEentzako informazioa](#) (ingelesez/frantsesez)
- [Espainiari buruzko informazioa](#), eta Europako Gutun Sozialaren sistemaren gainekoa (ingelesez/frantsesez)